



Denok dakigu zer prebentzio-neurri hartu behar ditugun COVID-19 ez zabaltzeko. Hala ere, ADOS Batzordeak Osasun Sailak herritarren lankidetzarako egin duen azken deialdiaren berri eman nahi dizue:

Osasun Sailak herritarren lankidetzarako deia berretsi du, eta beharrezkotzat jotzen du urruntze sozialeko neurriak betetzea, bereziki leku publikoetan, higiene-neurriak hartzen jarraitzeaz gain:

- Eskuak arreta handiz garbitzea, eta are gehiago arnas sintomak dituztenek. Ez dugu ahaztu behar kutsatzeen % 95 pertsonak sintomak dituenean gertatzen direla.
- Gainazalak garbitzea.
- Pertsonen artean gutxienez metro bateko tarteari eustea.
- Eztul egitean, ukondoarekin edo erabili eta botatzeko zapi batekin estaltzea.
- Sintomak (sukarra, arnas sintomak) dituztenek ez dute egon behar adinekoekin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin kontaktuan, ezta leku publiko eta jendetsuetan ere.

*Informazio gehiago Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>